Zabalgana CEIP/HLHI (Vitoria-Gasteiz)	●
Zaldupe HLHI/CEIP (Ondarroa)	●●
Zaraobe BHI/IES (Amurrio)	●
Zubi-Zahar Ikastola CPEIPS/HLBHIP (Ondarroa)	●
Zubi-Zaharra Ikastola HLBHIP/CPEIPS (Balmaseda)	●●
Zumadi HLHI/CEIP (Amezketta)	●
Zumaia BHI/IES (Zumaia)	●

# AZTERTU APP

**AZTERTU APP**-rekin kanpaina guztietako GALDETEGIAK betetzeko aukera izango duzu, edozein gailutik eta zauden lekuan zaudela. Gainera, ez da ezer deskargatu behar!

- 1 AZTERTU APP-ren web-helbidean sartu
- 2 Izena eman (edo saioa hasi, aurretik eman baduzu)
- 3 Aukeratu nahi duzun kanpaina

**Eta listo! Dena prest dago erabiltzen hasteko.**

Nahi beste aldiz itxi eta ireki dezakezu aplikazioa, sartutako informazioa gordeta geratuko baita. Era berean, zure artxibo historikoa ere kontsultatu dezakezu, osatutako txosten guztiekin.

APP-aren inguruko edozein zalantza argitzeko, [aztertu-progama.com](http://aztertu-progama.com) helbidean topatuko duzun **ERABILPEN GIDA** kontsultatu dezakezu, bai eta Aztertu Programarekin kontaktuan jarri ere. Beti bezala, hemen izango gaituzue edozein galdera erantzuteko prest.

Con **AZTERTU APP** podrás completar los CUESTIONARIOS de todas las campañas, desde cualquier dispositivo y sin importar donde estés. Además, ¡no hay que descargarse nada!

- 1 Accede a la dirección web
- 2 Regístrate (o inicia sesión, si ya lo has hecho antes)
- 3 Elige la campaña que quieras

**¡Y ya está! Todo listo para empezar a usarla.**

Puedes cerrar y abrir la aplicación cuantas veces quieras, ya que tendrás guardada la información introducida. También puedes consultar tu archivo histórico, con todos los informes elaborados.

Para aclarar cualquier duda sobre la APP, puedes consultar la **GUÍA DE MANEJO** que encontrarás en [aztertu-progama.com](http://aztertu-progama.com), o ponerte en contacto con Aztertu Programa. Como siempre, nos tendrás a tu disposición para responder cualquier pregunta.



**Laginketa eta ikerketen emaitzak modu eroso eta zuzen batean bidali**

Envía los resultados de los muestreos y estudios de una manera sencilla y directa

**[www.aztertu-progama.com](http://www.aztertu-progama.com)**







Loiola Auzoa Gunea, 1  
20730 AZPEITIA



Campo Diego Auzoa  
48500 ABANTO-ZIERBENA (GALLARTA)



Plaiiaundi Parke Ekologikoa  
20304 IRUN



San Bartolome Auzoa, 34  
48350 BUSTURIA

# Ekoetxeak

## Aztertu Programarekin lankidetzan



Egoitza konkretua ez badu ere, Aztertu Programarentzat garrantzitsua da erreferentzia fisiko bat izatea, kokapen jakin eta zehatz batekin.

Gaur egun, parte-hartzaileen eta programaren arteko harremanak gehienetan on-line edota telefonoaren bitartez badira ere, nahitaezkoa da helbide postal bat existitzea edozein dokumentu fisiko (galdetegiak, adibidez) edota lehiaketarako marrazkiak helarazteko.

**Erreferentzia postala baino askoz gehiago.** AZTERTU eta EKOETXEA, Eusko Jaurlaritzak Ihobe sozietate publikoaren bidez kudeatzen duen Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarea, elkar-lotzen dituen harremana sendoa da aspalditik. Izan ere, formakuntza saioak bertan ospatu izan dira askotan, EKOETXEAKo langileen laguntza eta bertako baliabideak erabiliz. Eta ez hori bakarrik. Hainbat edizioetan, Aztertu Programaren festa-EMANALDIA, EKOETXEek eskainitako aretoetan ospatu izan dugu.

Aunque no tenga sede concreta, para el Programa Aztertu es importante disponer de una referencia con una ubicación determinada y concreta.

En la actualidad, aunque las relaciones entre los participantes y el programa son generalmente on-line o a través del teléfono, es necesario que exista una dirección postal para hacer llegar cualquier documento físico (cuestionarios, por ejemplo) o dibujos para el concurso.

**Mucho más que una referencia postal.** La relación entre AZTERTU y la red de Centros Ambientales de Euskadi, EKOETXEA, gestionada por el Gobierno Vasco a través de su sociedad pública Ihobe, es sólida desde hace tiempo. De hecho, en muchas ocasiones se han celebrado jornadas de formación en sus instalaciones, además de contar con la ayuda del personal trabajador de EKOETXEA. Y no sólo eso. En varias ediciones, la fiesta del Programa Aztertu-EMANALDIA, se ha celebrado en los auditorios de EKOETXEA.

Jolas baten bidez, haurrek hainbat erronka gainditu behar zituzten, Debako kostaldearen egoera ekologikoa bertatik bertara aztertuz eta ezagutuz. Horretarako, fitxa bat bete behar izan zuten, non ingurumenarekin lotutako gaiei buruzko hainbat galdera, asmakizun eta froga planteatzen ziren: hondakinak aurkitzea, hondartzako eta arroketako izaki bizidunak bereiztea, gizakiaren inpaktua hausnartzea, etab.

Jolasaren bitartez bi helburu lortu genituen. Batetik, hondartzan aurkitutako hondakinak batu zituzten gazteek, baina, batez ere, modu jasangarriago batean bizitzeko beharraz konturatu ziren.





2023ko ekainean, EIBAR K.E. FUNDAZIOAK bere Udako Campusaren bederatzigarren edizioa jarri zuen abian, 9 eta 12 urte bitarteko 60 neska-mutilekin. Fundazioak ezarritako helburuen artean, kirol-jardunaren berezko helburuez gain, balioetan heztea, euskara eta ingelesaren praktika bultzatzea eta, jakina, ondo pasatzea nabarmentzen dira. Jasangarritasunaren aldeko hezkuntzarekin zuzenean lotuta, eta **AZERTU PROGRAMA**ren kolaborazio zuzenarekin, lankidetzatza proiektu bat sortu zen, non Campuseko ikasleek eta hezitzaileek ingurumenaren alde jarduteko aukera izan zuten hainbat ekintzaren bitartez.



# Eibar

## Kirol Elkartearen

### *Udako campusa*









Talde osoa bi talde txikiagotan banatu ondoren, Elgetako zelaietan aritu ginen, lpuuatik gertu. Asteburuetan asko bisitatzen diren aisialdirako guneak dira zelai hauek, bereziki udaberri eta uda garaian.

Gure xedea inguruan aurkitutako hondakinak bildu eta horien diagnostikoa egitea zen, ondoren errealitate horren irakurketa kritikoa egiteko. Zergatik dago hainbeste zabor? Nondik dator? Nola saihestu dezakegu? Ondorio bat argi dugu: lan asko daukagu egiteko gizarte kontzientziatu bat lortzeko bidean.




Debabarreneko Mankomunitateko Garbigunera egindako bisita gidatuak hondakin-bilketa selektiboa bermatzen duten azpiegitura hauen garrantzia ezagutarazteko balio izan zuen. Garbigunean etxeko objektu ugari beren bizitza erabilgarria amaitzen dute, eta bide berri bat hasten dute bere zatien berrerabilpenean edo birziklapenean.

Gure kontsumo-ohiturez jabetzea eta hondakinen kudeaketa egokia ziurtatzea funtsezko elementuak dira planetan eragiten dugun inpaktua murrizteko.



# La carabela portuguesa

• *Physalia physalis*



En boca de todo el mundo durante el pasado verano, ha llenado noticiarios y artículos de prensa debido a su presencia en aguas costeras del Cantábrico. Pero... ¿qué es en realidad la famosa carabela portuguesa?

## NO, NO ES UNA MEDUSA

La primera cuestión que puede despistar es que la Carabela Portuguesa NO es una medusa, aunque en el argot más popular se le trate como tal con el fin de simplificar y no generar confusión.

En realidad se trata de un organismo colonial, es decir, está compuesto por diferentes individuos que se han especializado en cumplir una función concreta y mantener así con vida al conjunto. Algunos se ocupan de la flotación, otros se encargan de la defensa y de capturar presas, otros hacen posible la digestión del alimento, incluso los hay específicamente adaptados para la reproducción.



Parece mentira, ¿verdad? Un ejemplo más de que la naturaleza no deja de sorprendernos.

## PREDADOR, ANFITRIÓN Y PRESA

La carabela utiliza el poder urticante de sus tentáculos para capturar a sus presas, principalmente pequeños peces y crustáceos que forman parte del plancton. El respeto y temor que ejerce su dolorosa picadura es, a su vez, lo que convierte a la carabela portuguesa en anfitrión habitual de ciertas especies de peces que buscan protección entre sus apéndices venenosos.

Sin embargo, no todos los habitantes del océano evitan coincidir con este hidrozoo. De hecho, las carabelas suponen una de las presas favoritas para las tortugas marinas, inmunes a la acción de las células urticantes gracias a su gruesa piel y duros labios. Es más, el esófago de la tortuga se encuentra recubierto de queratina y estructuras córneas que apuntan hacia abajo, lo que facilita el tránsito del alimento a la vez que le protege de cualquier posible daño.

## CÁMBIO CLIMÁTICO > CAMBIO DEL VIENTO

Desconocemos si la presencia de la carabela portuguesa en aguas litorales de Euskadi ha sido un





acontecimiento puntual o ha llegado para quedarse de manera definitiva. Lo que sí es evidente es que el progresivo aumento de la temperatura del océano favorece la aparición de esta especie en la costa vasca.

A pesar de que su hábitat natural son las aguas oceánicas abiertas, varias millas mar adentro, las cambiantes corrientes de aire marinas acercan a la costa numerosos ejemplares. No en vano, las carabelas portuguesas se valen de su flotador en forma de vela para desplazarse arrastradas por el aire, por lo que la distribución de estos organismos obedece a la dirección hacia donde sople el viento dominante.


Su tamaño puede variar en función de la edad y las condiciones de desarrollo, pero en términos generales podemos considerar a la carabela portuguesa como un hidrozoo de tamaño mediano/grande.

El característico elemento de flotación y los vistosos colores violeta-azulados que luce hacen que la especie sea inconfundible. Además, destaca por sus larguísimos tentáculos, indetectables desde la superficie, pero que abarcan una importante área si los mantiene extendidos. ■



Aztertu Programako

# Formakuntza saioak





## **Zeintzuk dira FORMAKUNTZA SAIOEN HELBURUAK?**

Formakuntza jardunaldietan ez dugu inoiz helburu bakarra bilatzen. Helburuak anitzak dira eta izena ematen duten pertsonak intentsio ezberdinekin datoz.

Lehenik eta behin, programako kideok esperientzia polita antolatzen saiatzen gara, edozeinek gozatzeko modukoa. Berdin dio pertsona batek Aztertu Programa ezagutzen duen ala ez, eta sakonki ezagutzeko intentsioa duen (gure nahia hori bada ere). Proposamen erakargarriak lortzeko, Euskal geografia arakatzan dugu leku interesgarri eta aproposak bilatuz eguneko jarduerak hauek prestatzeko.

Bigarren helburua, gure inguruko ondare naturala ezagutaraztea da, gertu daukaguna alegia.

Gugandik hurbil benetako altxorak daude, eta horiek ezagutzea nahitaezkoa da merezi duten moduan baloratzeko. Izan ere, Da Vinciren hitzak gureak eginez, *“Ezin da maitatu ezagutzen ez dena, ezta maite ez dena defendatu ere”*. Hortaz, eman diezaiogun merezi duen inportantzia.

Azkenik, trebakuntza praktikoa ere bilatzen da formakuntza saioetan, programak eskaintzen dituen ikerketa materialen gertuko ezagutza sustatuz. Ekosistema baten azterketa ekologikoa nola egin ikas dezakegu, indikatzaile ezberdinak aintzat hartuz eta hainbat neurketa eginez: ur-analisiak, bioaniztasunaren azterketa, gizakiaren inpaktuaren adierazleak antzeman, etabar.

**Eta zuk, zer bilatzen duzu? Edozein gauza dela ere, ongi etorria izango zara!**



# Gorbeia

IBAIALDE



**DATA:** 2023/04/21 eta 2023/04/22

**TOKIA:** Gorbeia Parke Naturala

**GAIA:** Erriberako basoa

**I**BAIALDE kanpainaren hasiera udaberriaren beste adierazle bat da guretzat. Horrekin batera, formakuntza saio berri baten momentua da, eta, kasu honetan, Gorbeia Parke Naturalean bildu ginen, Arabako lurretan kokatzen den Sarriako Parketxean (Zuia).

Ibaiaren ertzetan hazten den ibarbasoak oreka ekologikoa bermatzen duten funtzio ugari betetzen ditu, tenperatura egonkortu, itzala eskaini, lorzorua higadura ekidin, edota ur-emaria erregulatua, besteak beste.

Erreka baten uraren kalitatea bi modutan balioetsi dezakegu. Batetik, parametro fisiko-kimikoen neurketa egin dezakegu, kolore adie-

razleekin kutsatzaile ohikoenak detektatuz. Baina bada beste modu bat, bioadierazleak diren espezieak bilatu ditzakegu eta, bertan topatzen baditugu, uraren kalitatea ona izan behar duenaren seinale.

Gorbeia mendiaren magaletan kokatzen da Baias erreka iturburua. Maldan behera jarraituz, entitate nabariko ibaia osatzen da laster, hainbat errekaoren eta urazpiko uren ekarpenaren ostean. Ibai honen ertzetan garatu ziren formakuntzan emandako azalpenak eta aurrera eramandako ariketa praktikoak.







Ibai-ohean topa ditzakegun ornogabeak uraren kalitatearen adierazle bikainak dira. Adibidez, sorginorratzen ninfak oso ongi oxigenatutako eta kutsadura gabeko uretan hazten dira bakarrik. Ondorioz, animalia hauen ninfa bat ikusteak, erreka garbi eta osasuntsu dagoenaren seinale da, analisi fisiko-kimikorik egin beharrik gabe.

# Zumaia

## AZTERKOSTA

**DATA:** 2023/10/06 eta 2023/10/07

**TOKIA:** Zumaia - Euskal Kostaldeko Geoparkea

**GATA:** Kostaldeko Geodibertsitatea

**A**ZTERKOSTA kanpainako formakuntza Zumaian burutu genuen, kostaldeko Geoparkean biltzen den aberastasun geologikoa ezagutzeko prest. Flysch famatua buru, 10 kilometro eskasetan gure planetako historia gordetzen duten estratuak topa ditzakegu.

Ostiraleko jardunaldian oinezko ibilaldia osatu genuen, herrigunetik itsaslabarretaraino, aurretik Itzurun hondartzatik igaroz. Antzinako marinelen kofradia eta amildegian eskegita dagoen San Telmo basiliza barrutik bisitatzeko aukera ere izan genuen.

Larunbatean, aldiz, itsasotik paisaiaz gozatu zuten formakuntzara hurbildu ziren lagunek. Ordu beteko txangoaren ostean, ikuspegi bikainenaren argazkia eraman ahal izan genuen kamara eta mugikorretan. Behin portuan, AZTERKOSTA ikerketarako kit-ak frogatzeko momentua izan zen, Urolako itsasadarreko uraren osasuna baieztatzeko balio izan zuten neurketak eginez.







Lehorretik polita badira ere, itsasotik ikuspegi harrigarria eskaintzen dute Geoparkeko labarrek. Flysch-aren estratuek urarekin bat egiten dute olatuen artean, aberastasun geologikoaren eta aniztasun ekologikoaren arteko uztartze perfektua.



# Gaztelugatxe

NATURA



**DATA:** 2023/11/17

**TOKIA:** Gaztelugatxe

**GAIA:** Marearteko arroken bioaniztasuna

**N**ATURA kanpainan ospatzen dugun lehenbiziko formakuntzarako, Bizkaiko kostaldeko puntu benetan esanguratsua aukeratu dugu. Balore natural eta ondare-kultural zein -historikoz betetako parajea da Gaztelugatxe, itsasoa eta lurra elkar besarkatzean osatzen den paisaiaren adierazle bikaina.

Bizkaiko Foru Aldundiak martxan jarritako bisita-zerbitzuaren koordinatzaile den Izaro Abaoren eskutik Gaztelugatxek gordetzen dituen sekretuak ezagutu genituen: kondaira eta eleza-

harrak, gaur baseliza denaren jatorria eta bilakaera, gertakari historiko azpimarragarriak, inguruko herrien ospakizunak, eta noski, naturak eskaintzen dituen berezitasunak.

Baselizarainoko eskailera mordera igo ondoren atseden txiki bat merezita hartu genuen, ha maiketakoaz eta goitiko ikuspegiak goatzeko aukera bikaina aprobetxatuz. Era berean, inguruan garatzen diren ekosistema ezberdinak bereiztu eta landu genituen, bertan bizilekua topatzen duten hainbat animalia- eta landare-espezie goraipatuz.

Gaztelugatxeko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) baseliza tontorrean duen muino famatua baino askoz gehiago da. Ekialdean kokatzen den Aketx uhartea ere babestutako eremuaren parte da, bai eta inguruko marearteko guneak eta itsaslabarrak ere.

Gaztelugatxeko esparruak dituen babes figurak gutxi balira ere, Natura 2000 Sareak gertu dauzkan beste naturgune batzuekin elkar-lotzen ditu espazio guztiak, hala nola Urdaibaiko itsasadarra, Mundaka eta Ogoño arteko itsasgune babestua, edota Urdaibaiko Biosferaren parte diren artadi kantauriarrak zein ibai-sarea.







## Itsasbeherak dakarrena



NATURA kanpainan eskaintzen den behaketa materialaren erabileraren adibide praktikoa burutu genuen marearteko zabalgunean. Itsasbehera aprobetxatuz, arroken arteko arrakaletan eta tarteko putzuetan babesa aurkitzen duten espezie ezberdinen behaketa eginez, bioaniztasuna hausnartu eta zenbatetsi daiteke.

# Aztertu sariak 2023



2023 urtean Aztertu Programak antolatutako lehiaketetan irabazle suertatu diren marrazki eta argazkiak aurkeztu nahi dizkizuegu, **100 argazki** eta **3.294 marrazkiren** artean aipamen berezia lortu duten obrak.

Lan polit hauek behar den moduan saritzeko, 2024ko otsailaren 24an EMANALDIA saioa ospatuko dugu Donostiako Aquariumean, Aztertu Programaren urteroko festa.

**Zorionak irabazleei eta lehiaketara aurkeztu zareten guztioi!**

## Gure Kostaldea eta Itsasoa



### Ane Bosch

CPEIPS Lauro Ikastola HLBHIP  
(Loiu)

*Accésit (≤5 urte)*



### Alicia Calleja

CPEIPS San José HLBHIP (Santurtzi)  
2. *Kategoria (11-15 urte)*



### Hugo Freitas

IES Antigua-Luberri BHI (Donostia)  
2. *Kategoria (11-15 urte)*

“Santa Katalina Uhartea Ondarretatik”



### Oier González

CPEIPS Bihotz Gaztea Ikastola  
HLBHIP (Santurtzi)

1. *Kategoria (≤10 urte)*



### Joanes Karrera

IES Azkoitia BHI (Azkoitia)  
3. *Kategoria (≥16 urte)*



### Ana Ruiz de Azua

CPEIPS San José de Floreaga  
HLBHIP (Azkoitia)

3. *Kategoria (≥16 urte)*  
“Itzurun Hondartza”



Os presentamos los dibujos y fotografías ganadoras de los concursos organizados por Aztertu Programa durante el año 2023, obras destacadas entre las **100 fotografías** y los **3.294 dibujos** presentados.

Con el fin de premiar como se merece estos bonitos trabajos, el 24 de febrero de 2024 celebraremos en el Aquarium de Donostia el evento EMANALDIA, la fiesta anual del Programa Aztertu.

**¡Felicidades a las personas galardonadas y a quienes os habéis presentado al concurso!**

## Gertuko Ibaiak eta Errekak



**Iker William Balañas**

Vitoria-Gasteiz  
*Accésit (≤5 urte)*



**Nahia Epelde**

CPEIPS La Salle-San José HLBHIP  
(Zarautz)  
*2. Kategoria (11-15 urte)*



**Haizea Garmendia**

CPES Herrikide Eskolapioak BHIP  
(Tolosa)  
*2. Kategoria (11-15 urte)*  
"Oria Ibaia Tolosatik"



**Nora Irigoyen**

CPEIPS Sto. Tomás Lizeoa HLBHIP  
(Donostia)  
*1. Kategoria (≤10 urte)*



**María Victoria Milano**

Venezuela  
*3. Kategoria (≥16 urte)*



**Amaia Alberdi**

CPEIPS San José de Floreaga  
HLBHIP (Azkoitia)  
*3. Kategoria (≥16 urte)*  
"Otzarretako Pagadia"

## Inguruko Bioaniztasuna eta Ekosistemak



**Paula Salazar**

CPEIPS Calasanz Santurtzi HLBHIP  
(Santurtzi)  
*1. Kategoria (≤10 urte)*



**Laura Clavero**

CPEIPS Centro San Viator HLBHIP  
(Sopuerta)  
*2. Kategoria (11-15 urte)*



**Marce Tena**

Nire Esku Tailerra (Ibarra)  
*3. Kategoria (≥16 urte)*

# XI. Ekinaren Eguna

## ZER DA EKINAREN EGUNA?

Ekimena 2012an sortu zen, Aztertu Programaren ohiko laginketa eta azterlanetatik harago, ingurumenaren aldeko ekintza zehatzak burutzearen aldeko apustua. Horrela, berehalako etekin bat lortzea da ideia, erraz ikus daitezkeen emaitza neurgarriekin eta inpaktu bisual handiagoarekin.

Hasieratik, hainbat kolektibo eta talderen inplikazioa bilatu genuen, ezartzen genituen helburuak lortzeko. Hondakinak biltzea, espezie inbaditzaileak kentzea, ekosistemak lehengoratzea... burututako jarduerak ingurumena hobetzea bilatu dute beti, nahitaezkoa den jolas- eta hezkuntza-osagaia ahaztu gabe.







### **¿QUÉ ES EKINAREN EGUNA?**

La iniciativa nace en el año 2012 como una apuesta de Aztertu Programa por realizar acciones concretas en favor del medio ambiente más allá de los habituales muestreos y estudios. De este modo, se pretende conseguir resultados instantáneos, tangibles y con un mayor impacto visual.

Desde el principio se buscó la implicación de diversos colectivos y agrupaciones que hiciera posible la consecución de los objetivos marcados cada año. Recogidas de residuos, eliminación de especies invasoras, restauración de ecosistemas... las actividades llevadas a cabo siempre han buscado una mejora ambiental, sin olvidar nunca el necesario componente lúdico y educativo.

# Gymkana ambiental

Playa de la Zurriola. Donostia | 21/05/2023

## Más de 90 personas tomaron parte en una jornada que aunó diversión y aprendizaje activo en el cuidado del medio ambiente

**T**ras la buena acogida de la **Gymkana Ambiental** celebrada en la playa de La Arena (Zierbena) el año anterior, en 2023 apostamos por una actividad en esa misma dirección, a la que se sumaron novedades y un cambio de ubicación. Esta vez nos trasladamos a Donostia, más concretamente a la playa de la Zurriola.

Sobre las 11 de la mañana del domingo 21 de mayo, el stand informativo situado en el paseo que da acceso a la playa reunió a las más de 60 personas inscritas en la Gymkana, casi todas ellas organizadas en grupos familiares y en cuadrillas de amigas y amigos, no en vano la actividad estaba especialmente pensada para las niñas y los niños de entre 4 y 12 años. Si embargo, la opción de participar continuó abierta para quien quisiera (hasta agotar el material dispuesto para la ocasión), sumándose cerca de 30 personas más en el transcurso de la mañana.

La GYMKANA consistió en realizar diferentes pruebas de temática ambiental a lo largo de la playa: ¿eres capaz de encontrar este residuo?, ¿podrías recoger 5 o más trozos de plástico?, ¿qué animales viven en las rocas?, ¿cuáles son los niveles de oxígeno del agua?... Aztertu Programa proporcionó los cuadernillos y todos los elementos necesarios para completar el juego.

### PLÁSTICOS, RESIDUOS URBANOS...

Botellas, tapones, envoltorios de comida y chucherías, bolsas, embalajes... enseguida llenaron los contenedores dispuestos para la ocasión. La clasificación selectiva de los residuos permitió identificar las principales problemáticas que ge-

neran estos deshechos, en su mayoría elementos traídos por el mar y dispuestos en la playa por las olas y la marea.

Las conclusiones al término del juego fueron claras y unánimes. Por un lado, la cantidad de plásticos detectados en la arena es inmensa, pudiéndose recoger de manera eficaz únicamente los más grandes, lo que subraya el daño ambiental que generan los microplásticos y la necesidad de cambiar el modelo productivo actual, reduciendo los plásticos de un solo uso y procurando adaptar nuestros hábitos de consumo.

Por otro lado, conviene destacar el gran número de residuos procedentes de la ciudad y del uso directo de la playa como zona de recreo y disfrute. Se contaron por docenas los vasos de plástico, los embalajes de comida y los envoltorios de snaks y golosinas encontrados, lo que acentúa la importancia del correcto comportamiento de la población como un factor determinante.





### ... Y MUCHA MADERA

A todo ello, se le sumó un aspecto no tan habitual en una playa urbana, la gran cantidad de ramas y troncos varados en la arena. En este caso, no los podemos calificar como residuos, ya que su procedencia es 100% natural, aunque como resultado produzcan un fuerte impacto visual. Pero, ¿por qué tanta madera? La respuesta se evidenciaba en el color marrón de las aguas que el Urumea vertía al mar. De hecho, la noche anterior, fuertes tormentas golpearon el cauce alto del río y sus cabeceras, afectando a diversos puntos en el entorno de Añarbe. Esto provocó numerosos desprendimientos de ladera, el arrastre de vegetación (incluso de árboles enteros) y fuertes avenidas en los márgenes fluviales. ¿Otro aviso más de la naturaleza?



# Landare inbaditzaileen eliminazioa

Etxebarri | 2023/05/22

**H**eze eta fresko jaiki zen Etxebarriko Ametzola parkean maiatzaren 22ko eguna. Gaueko eurriak eta egunsenti-ko lanbroak buzti aurkeztu zituen ibai inguruko landak, apurka-apurka lehortuz joango zirenak eguzkiaren indarrarekin.

Jardunaldiko eginbeharra argi bazegoen ere, boluntariak adi entzun zituzten hartu beharreko segurtasun neurriak, lan-erreminten erabilera-aren inguruko argibideak, eta lan-taldean antolaketari buruzko irizpideak. Horrela, 100 ikasleak (eta zentruko 5 irakasle) hiru interbentzio-talde osatu zituzten, bakoitzari ibai-tarte bat egokituz. Taldeek, Aztertu Programaren hezitzaileen laguntza izan zuten uneoro, bai eta *Equinoccio Natura* elkarte-ko lagun-aholkuak ere, inguru horretako lurraldearen zaintzaren arduradunak eta espezie arrotzen eliminazioan adituak.

## **ALLIUM TRIQUETRUM ETA FALLOPIA JAPONICA**

Bi landare espezie exotikoren eliminazioa izan genuen helburu, basatxuria (*Allium triquetrum*) eta *Fallopia japonica* (japoniar piper-belarra). Aloktonoak izateaz gain, bi espezieek portaera arrotza dute bertoko landaretzarekiko, hazkunde tasa altua eta baliabideengatik erakusten duten lehiakortasun handia dela eta.

Basatxuriak klima mediterranean du jatorria, baina Europa osora zabaldu da edozein lurzorura moldatu eta errotzeko duen ahalmenagatik. Zelaiak eta landare-gabeko ibaiertzak erraz kolonizatzen ditu, baratxuri txiki baten itxurako bulboa osatuz. Aldi berean, beste landareentzako toxikoak diren konposatu kimikoak ekoizten eta jariatzen ditu, bere inguruan ezer hazten ez dela ziurtatuz.



La Salle Deustu Ikastetxeko 100 ikaslek Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren ertzetan antolatutako espezie arrotzen eliminazio lanetan parte-hartu zuten



Etxebarriko Udalak erraztutako 8 edukiontzi landare inbaditzailez bete ziren, ondoren errauztera bideratuko zirenak. Azken pauso hau oso inportantea da espezie arrotzen hedapena ekiditeko, landareen haziak eta hozi-ehunak suntzitzen baitira.



Bestetik, *Fallopia japonica* dugu, ibaiertzean eta hezetasun handiko lekuetan hazten dena. Sus-trai tinkoak azkar luzatzen ditu lurzoruan barrena eta, aldi berean, gaitasun igokaria garatzen du pareta, hezi edo antzeko estrukturaren bat aurkitzen badu. Bere hosto zabalek argi-izpiak eteten dituzte, gainontzeko landareen garatzeko gaitasuna murriztuz.

Bi landare espezie hauek kentzeko lanak mekanikoak dira, hortaz, atxurak eta guanteak ba-



Gas-bonbona bat, koltxoi eta arropak, errepidetako kono bat, neumatikoak, hodiak, kotxe baten piezak... Ur-emariak ibaian behera arrastatutako elementuak dira hauek denak, zalantzarik gabe, gizakion kontzientzia falta agerian uzten dutenak. 120 kg hondakin batu ziren Ibaizabal ibaiaren ibilguan, udal garbiketa zerbitzuen esku utzi zirenak.

natu ziren bolondresen artean. Landarea moztea baino, errotik ateratzea zen ideia, berriz ere gorpuzkietatik hazteko aukera galdu zezaten. Bulboak eta rizomak lurzorutik ateratzea zen lehenbiziko pausoa, ondoren udal-zerbitzuek erraztutako edukiontzietan landarearen zati guztiak sartuz. Kontenedore hauetan gordetako arretzera bideratua izan zen, landare zatiak beste inon finkatu edo errotzeko aukera ekidituz.

### ZABORREN BILKETA

Helburu nagusia landare exotikoak baziren ere, bide batez, ibai inguruan topatutako hondakinak jasotzeko aukera ez zuten galdu ikasleek. Aipagarria da Nerbioi-Ibaizabal errekarren ibilgutik ateratako zabor bolumena, ez hainbeste hondakin kantitateagatik, bai ordea jasotako objektuen tamaina handiagatik.

## LA SALLE DEUSTU, IBILBIDE LUZEKO IKASTETXEA AZTERTU PROGRAMAN

Ikasturte bukaeran murgilduta egonagatik, ingurumenaren alde lan egiteko prest azaldu ziren La Salle Deustuko ikasle eta irakasleak. Ibilbide luzea darama Aztertu Programan ikastetxe Bilbotar honek, izan ere, bere parte-hartzea etengabea izan da azken 20 urtetan, Juan Carlos Arrarte irakaslearen eskutik.

# Gure paisaia,

Euskal geografiaren paisaia-aniztasuna gure lurraldearen bereizgarri da.

Kilometro karratu eskasetan faktore askok bat egiten dute, aipatutako aberastasuna elikatzen dutenak: zonalde klimatikoaren elkargunea, erliebe malkartsuak eta lauak, era askotariko egitura geologikoak, lurraldearen erabilera anitza, ekosistema natural eta antropizatuen nahasketa, etab.



## Klima, erliebea eta gizakiaren eskua

### GURE PAISAIK DIREN MODUKOAK IZATEKOAREN ERANTZULE

Kantauriar isurialdeko eremu berde eta menditsuek, imajinario kolektiboan errotua daukagun Euskal paisaiaren irudia osatzen dutela esan genezake. Larreak eta basoak txandatzten dira “kuadro” horretan, baso naturalak eta baso-landaketak alegia, han eta hemenka sakabanatutako baserri, herrixka eta landutako lurrekin (baratzak eta ortuak). Itsasoa ere gertu nabari da, nahiz eta ez ikusi.

Hegoaldeko lautadek, bestalde, argazki “horixka” dakarkigute burura. Labore-lursail zabalak nagusi dira hemen, baso naturalez ehundutako mendi garaiak paisaiaren atzealdea betetz. Udako beroa eta neguko hotza nabariak dira hemen, gurean mugako tenperaturak izan direnen adierazle.

Bi adibide oso orokor badira ere, nahiko ondo laburbiltzen dute ezaguna dugun Euskal paisaia. Baina... etorkizuneko belanaldiek ezagutuko dutena hau bera al da?



## Mediterranizazioa

### GERO ETA NABARIAGOA DEN FENOMENOA

Klima atlantiarraren atzerapausoa nabarmena da, azken urteetako joerak agerian uzten duen moduan, gero eta iparralderago muga ezarritik klima mediterranearen aurrean. Orain arte Arabako hegoaldean berezkoak izan ditugun ezaugarri klimatikoak (iberiar penintsulan ere nagusi direnak), apurka-apurka nabariagoak dira Bizkaian eta Gipuzkoan.

Bataz besteko prezipitazioa eskasagoa da lurraldeko puntu guztietan. Kontran, tenperaturak gora egin du, bai atmosferakoa (airearena), bai itsasoko urarena. Era berean, bero-boladak gero eta ohikoagoak eta luzeagoak dira, etengabe gaitzen diren marka berriekin.

Askotan irakurri dugu honen inguruan, ezta? Urteak daramatzagu gai hauek lantzen eta ikuspegi “katakrofisten” inguruan aritzen. Baina gauza bat aldatu da. Oraingoan ez da etorkizuneko aurreikuspena, gertatzen ari denaren berri ematea baizik.



# arriskuan



## Bardea arabarrak eta Kantauriar-Errioxa

### PAISAIAREN ERALDAKETA POSIBLE BAT

Argi dago aldaketa klimatikoak eragina duela bioaniztasunean eta lurzorua erabileran, eta, ondorioz, paisaiaren aldaketa bat dakarrela. Zehaztasunak ez dauzkagu, baina egungo joera aldatzen ez bada hegoaldeko lurren antza hartu dezakete iparrerago kokatzen diren zonaldeek.

Espezie askok lekuz aldatu beharko dute, eremu jakin batetik desagertuz. Zuhaitz hostozabalen basoek, adibidez, ongi garatzeko esparruak gutzituz murriztuak ikusiko dituzte, hain berezkoak ditugun haritza eta pagoen desagertapenarekin. Era berean, nahiz eta bertoko espeziea ez izan, gure paisaiaren adierazle den intsiniz pinuak ere kolokan ikusiko du bere etorkizuna, etekin ekonomikoaren galeraren ondorioz, landaketak alde batera uzteko tendentzia areagotuko baita.

Nabarmen atzera egiten ari duen landazabal-atlantikoak iraungitze data izateko arriskua dago ere bai. Mendi-eremuen uzteak eta abeltzaintza jasangarriaren abandonuak, zelai esparruen galera larriagotzen dute. Baldintza klimatikoak ere, ez dira larreak mantentzeko aproposenak, lurzorua erabileran aldaketa bultzatzen baitute. Horrez gain, gaur egun Arabako lautadan ezartzen diren espezie-bakarreko laborantzak (garia, garagarra, zekalea) Kantauriar isurialdera ailegatzeko bidean daude.



## Garaiz gaude ekiditeko! Baina denbora premiazkoa da

Itxaropena galtzeko ez gaude hemen, baina badakigu denbora soberan ez daukagula. Naturak bidaltzen ari dizkigun abisuak ezin dira argiagoak izan, hortaz, gure esku dago, horiei kasu egin edo beste alde batera begiratu. Apustu bateratua nahitaezkoa da. Argia eta zintzoa. Hitzak akzio bihurtuz. Konpromisoak errealitate bilakatuz. Kapaz izango gara?



# Tejiendo redes verdes

Un proyecto del Centro ocupacional Donibane

**Desde el Centro ocupacional Donibane participamos en la red Sare Berdeak con el proyecto “Jardines y terrazas con vida”, una iniciativa que trata sobre cómo podemos proteger la biodiversidad urbana desde un jardín, un balcón o una terraza. Pequeñas medidas con un gran impacto positivo en el medio ambiente, ya que generan espacios verdes que mitigan el efecto isla de calor en las ciudades y áreas urbanas, además de suponer sustento y protección para la flora y fauna que nos rodea. Nos referimos especialmente a aquellos seres que cohabitan con el ser humano en las ciudades, de los cuales no nos percatamos (insectos, pequeños invertebrados, aves, etc.).**

Trabajamos fuera del aula y utilizamos nuestro propio jardín como muestra y campo de trabajo.







El primer paso lo dimos junto al colegio Nuestra Señora de las Mercedes (Mercedarias), también de Leioa, el cual se puso en contacto con el fin de realizar un proyecto en común. Una apuesta conjunta que requería la implicación de ambas partes, todo ello en beneficio de la comunidad. Además de suponer un proyecto con un componente ambiental innegable, la implicación en el mismo de las personas que conforman el taller ocupacional supone un impulso para el colectivo de personas con discapacidad en el ámbito laboral y en la interrelación social.

### **¿EN QUÉ CONSISTE EL PROYECTO “TEJIENDO REDES VERDES”?**

Asentada con éxito la idea de “Jardines y Terrazas con vida”, dimos un pasito más y ampliamos la red de colaboración con diferentes centros escolares del entorno cercano. Es así como nace “Tejiendo Redes Verdes”, programa que trata de compartir espacios y actividades en relación al medio ambiente, en los que podamos intercambiar conocimientos convirtiéndolo en un medio de sensibilización hacia la realidad de las personas con discapacidad intelectual.

Desde un espacio vivo y diverso, que es nuestro jardín, ayudamos a conocer, reconocer, cuidar y respetar la biodiversidad urbana y todo lo que ello engloba. El escaso conocimiento sobre el medio ambiente, la falta de cuidado del mismo y la creencia de que los recursos son inagotables nos hicieron plantearnos la necesidad de compartir nuestro jardín y utilizarlo para la educación, con este enfoque de sostenibilidad.



Además, la idea de que sean personas con discapacidad intelectual las que desarrollen los contenidos y las explicaciones enriquece el proyecto de manera notable.

A lo largo del curso 2022-2023 han participado cerca de 300 alumnas y alumnos de los centros escolares de Alzaga, Irlandesas y Mercedarias, todos de Leioa, y Gobela Ikastola, de Getxo.

### **MENCIÓN ESPECIAL “EKINAREN ASTEA 2023”**

Con la intención de visibilizar y compartir nuestra experiencia, el pasado mes de mayo compartimos el proyecto a través de AZTERTU PROGRAMA en

# ¿Qué tiene de especial nuestro jardín?

Utilizamos especies autóctonas.

Conservamos y respetamos la flora espontánea en algunas zonas del jardín.

Podamos los setos de manera naturalizada, para que produzca alimento y sirva de refugio para la fauna silvestre.

Eliminamos las plantas exóticas invasoras (plumero de la pampa).

Mantenemos un "oasis de mariposas".

Cultivamos plantas que benefician a los polinizadores (abejas, mariposas...): tomillo, lavanda, romero...

Fabricamos y colocamos cajas nido.

Colocamos carteles explicativos de LECTURA FÁCIL


Reducimos la frecuencia de las siegas en beneficio de polinizadores y aves.

Creamos muretes de piedra creando cobijo para reptiles e insectos.

Estamos creando un estanque para generar un hábitat de anfibios.

Colocamos hoteles para insectos que utilizan como refugio.

Nuestro jardín sensorial nos muestra cómo disfrutar de las plantas.



la semana de EKINAREN ASTEA. Al parecer, gustó y tuvimos la suerte de que nuestro programa resultara ganador de la mención especial que se concede a la actuación o propuesta más significativa.

Aunque no nos haga falta demasiado para seguir trabajando con ilusión, se trata de detalles que se agradecen y que nos animan a continuar con este tipo de propósitos.





PROYECTO  
**BOOST**  
PROIEKTUA



## Adimen kolektiboa sarean

### Inteligencia colectiva en red

Ingurumen-hezkuntza  
Euskadin sustatuz,  
herriarrak klima-aldaketaren  
aurrean ahalduzko.

Impulsando la Educación  
Ambiental en Euskadi para  
empoderar a la ciudadanía  
ante el cambio climático.

Iraunkortasunerako  
Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua  
*Servicio de Educación Ambiental  
para la Sostenibilidad*



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN  
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD  
Y MEDIO AMBIENTE

**747 42 99 33**

**[aztertu@euskadi.eus](mailto:aztertu@euskadi.eus) | [www.euskadi.eus/aztertu](http://www.euskadi.eus/aztertu)**